

KAZETARIANTZAKO  
**EROSKETA PUBLIKO**  
**BERDEARI** BURUZKO  
GIDA AZKARRA



Herri-baltzua  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAHIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



KAZETARIANTZAKO  
**EROSKETA PUBLIKO**  
**BERDEARI** BURUZKO  
GIDA AZKARRA



©

**Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa**  
**Ihobe, Sociedad Pública de Gestión Ambiental**

**EDITOREA:**

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila  
Eusko Jaurlaritza

Urkixo Zumarkalea 36, 6 (Bizkaia plaza)  
48011 Bilbo

**[info@ihobe.eus](mailto:info@ihobe.eus)**

**[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)**

**[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)**

**EDIZIOA:**

2018ko urria

# aurkibidea

- 07** Zer da erosketa eta kontratazio publiko berdea (EKPB)?
- 07** Zertarako balio du erosketa eta kontratazio publiko berdeak? 10 abantaila, ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik
- 08** Erosketa eta kontratazio publiko berdearen egungo testuingurua
- 09** Lotutako legedia
- 10** EKPB-aren ezarpen arrakastatsuen adibideak Euskadin
- 11** Desafíos de la compra y contratación pública verde
- 11** 2020rako Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berderako programa
- 14** Intereseko bibliografia
- 14** Kazetarietzako baliabideak



# ZER DA EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA (EKPB)?

Erosketa eta kontratazio publiko berdea (EKPB) edo, ingelesez, *Green Public Procurement* (GPP) honela definitzen du Europako Batzordeak **«prozesu bat da, zeinari jarraikiz agintaritza publikoak beren bizi-zikloan ingurumen-inpaktu txikia eragiten duten produktuak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen ahalegintzen diren, funtzio nagusi bera betetzen duten ingurumen-inpaktu handiagoko beste produktu, zerbitzu eta obra batzuen orde»**.<sup>1</sup>

## ZERTARAKO BALIO DU EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAK? 10 ABANTAILA, EKONOMIAREN, INGURUMENAREN ETA GIZARTEAREN IKUSPUNTUTIK

Eusko Jaurlaritzak inoizko aurrekonturik handiena<sup>2</sup> du 2018an: 11.486 milioi, 2017ko ekitaldian baino % 3,9 gehiago. Aurrekontu hori gastatzeko moduak ingurumen-inpaktu handiagoa edo txikiagoa eragin dezake. Ihobe sozietate publikoaren iritziz, erosketa eta kontratazio publikoa irizpide «berdeen» arabera egiteak hainbat onura dakartza administrazioarentzat, sektore pribatuarentzat eta gizartearentzat, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik. Onura horiek hamar puntu hauen bidez laburbil daitezke:

1. Administrazioaren eraginkortasuna, gardentasuna eta irudi publikoa hobetzen ditu.
2. Sektore publikoari aukera ematen dio bere ingurumen-xedeak lortzeko edo, gutxienez, haietara hurbiltzeko.
3. Aurrezpen ekonomikoa sustatzen du kostuak optimizatzen dituelako eta produktu eta zerbitzuen bizi-ziklo guztia kontuan hartzen duelako.
4. Lan-ingurune osasuntsu baterako baldintzak sortzen ditu.

<sup>1</sup> Europako Batzordea (datarik ez) What is GPP? [http://ec.europa.eu/environment/gpp/what\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/gpp/what_en.htm)

<sup>2</sup> <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2017/aprobados-los-presupuestos-generales-de-euskadi-2018-de-11-486-4-millones-de-euros/>

5. Pizgarriak eskaintzen dizkio industriari berritzeko eta lehiakorragoa izateko, ingurumen-aldagaiak garrantzi gero eta handiagoa duen merkatu global batean.
6. Produktu eta zerbitzuen kostua murrizten laguntzen du.
7. Tokiko ekonomia indartzen du.
8. Herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, ingurumen-inpaktuak murriztuz.
9. Ekintzaitzaren eta enpleguaren arteko lotura bat ezartzen du.
10. Ingurumen-gaiei buruzko kontzientziazioa handitzen du herritarren artean.

Ihobe sozietate publikoak nabarmentzen du *«ingurumen-inpaktu txikiagoa lortzea hobekuntza bat dela bere horretan ere. Zailagoa izan daiteke abantaila ekonomikoa ikustea, baina gehien-gehienetan ere hor dago. Erosketaren kostua ez da beti garrantzitsuena erosketa-prozesu arduratsu batean. Aitzitik, beste ingurumen-kostu batzuk ere kontuan izan behar dira, hala nola erabilera-faseetakoak edo hondakina kudeatzekoak».*

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN EGUNGO TESTUINGURUA

Historikoki, erosketa eta kontratazio publiko berdean Europako lider diren «zazpi berdeez» hitz egiten da: Austria, Alemania, Holanda, Erresuma Batua, Finlandia, Suedia eta Danimarka. Adibidez, Finlandiak EKPBko irizpideak erabiltzen zituen lizitazioen % 80an 2012rako. Kopenhageko udala (Danimarka) da esperientzia honen sendotasunaren beste adibide bat, eragile guztien inplikazioarekin. Helburua da ikastetxe publikoetako jangeletan ematen diren elikagaien % 90 organikoak eta sasoikoak izatea.

Europako Batzordeaz gain, nazioarteko beste hainbat erakundek ere erosketa mota hau sustatzeko programak dituzte. Batzuk aipatzearren, nabarmentzekoa da Nazio Batuen Ingurumen Programa. Horren erosketa eta kontratazio publiko berdearen programarekin bat egin du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak. Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Sareak (ICLEI) planeta osoko tokiko eta eskualdeko milaka agintaritza biltzen ditu, eta ekimen interesgarriak garatzen ditu ere alor horretan.



# LOTUTAKO LEGEDIA

2018ko martxoaren 9an jarri zen indarrean **9/2017 Legea**, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Lege horrek erosketa eta kontratazio publikoko prozesuetan ingurumen-alderdiak kontuan izateko betebeharrak ezartzen die administrazio publikoei eta enpresa lizitatuak. «*Orain arte, ingurumen-irizpideak txertatzea borondatezkoa zen. Lege berri honekin, ingurumen- eta gizarte-klausulak nahitaz txertatu beharko dira, modu transbertsalean, erosketa eta kontratazio publikoetan*», azaldu du Iñigo Soizate publikoak.

Euskadin, hainbat plan estrategiko eta hitzarmen espezifikoetan txertatu da erosketa eta kontratazio publiko berdea 2008tik, hala nola, 2007-2010erako Ingurumen Esparru Programan. 2008an, Eusko Jaurlaritzaren gobernu-kontseiluak erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko erabaki bat onartu zuen lehen aldiz. Horren bidez, konpromisoa hartu zuen ingurumen-aldagaia lizitazioetan txertatzeko, zeharkako ildo gisa.

2011n, Euskadi erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa onartu zen, 2014ra arteko indarraldiarekin. 2016an beste programa berri bat onartu zen, 2020ra arte indarrean egongo dena. Euskal sektore publiko osoari eragiten dio (Jaurlaritza, aldundiak, udalak eta erakunde publikoak).

Euskadiko erakunde publikoetan erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko egindako lana dela eta, Eusko Jaurlaritzak sari bat jaso du Eskualde Batuen Erakundearen eskutik (ORU Fogar); nazioarteko erakunde horrek mundu guztiko eskualdeak biltzen ditu.

Saria ORU Fogarrek Gasteizen antolatu zuen Eskualdeen Batzar Orokor eta Munduko Foroan entregatu zen, 2017ko azaroaren 28an, hainbat herrialdeko gobernadore, eskualdeko presidente eta prefekturen parte-hartzea izan zuen ekitaldi batean.

# EKPB-AREN EZARPEN ARRAKASTATSUAREN ADIBIDEAK EUSKADIN

Euskadin administrazio, udal eta gobernuko eragile ugari ari dira erosketa eta kontratazio publiko berdea beren ohiko jardunean txertatzen. Esate baterako, Gasteizko Udalak jarraibide oso xehatu bat du EKPBa errealitate bihur dadin, klausula sozialekin batera. Donostiako Udalak ere asko landu du ildo hori, baita beste udalerrri txikiago batzuek ere, hala nola Legazpik, edo beren politika eta tresna operatiboak dituzten eskualdeek, lhobek nabarmentzen duenez.

Europako Batasunak badu erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko **webgune bat**; bertan, Europako jardunbide egokien adibide batzuk ematen dira, eta horien artean Euskadiko kasu arrakastatsu batzuk kontsulta daitezke:

- **Building maintenance services**, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Framework contract for green IT Equipment in Gipuzkoa**, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Furniture & white goods for public housing projects**, Visesa.
- **Green Requirements for the Maintenance of Parks and Gardens**, Errenteriako Udala.
- **Greening the construction, renovation and design of buildings in the Basque Country**, Sprilur.
- **Greening public procurement in the Basque Country**, Eusko Jaurlaritza.
- **Procurement of green office furniture by Basque Government**, Eusko Jaurlaritza.

# EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ERRONKAK

EKPbaren erronka nagusietako bat inplikaturako eragileen gaikuntza da. Ihobe sozietate publikotik diotenez, *«lizitazio batean txerta daitezkeen ingurumen-aldagai guztiak ezagutzea oso zaila da, eta horretarako beharrezkoa da prestakuntza handia jasotzea. Horregatik, garrantzitsua da kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten pertsonekin lan egitea, modu praktikoa erakusteko nola txerta ditzaketen erosketa-baldintza berriak lizitazio publikoko pleguetan».*

Enprekin lan egitea ere erronka handi bat da. *«Euskadin ingurumenaren arloan bide luzea jorratu duten enpresak ditugu, ingurumen-kalitate handiko produktu ugariarekin. Hori dela eta, ekarpen handia dute egiteko. Administrazio gisa, ingurumen-irizpideak betez egindako edo ekoiztako produktuak erosteko ardura dugu eta, merkatuan halakorik ez badugu, horien sorrera sustatzeko ardura».*

Ihobe sozietate publikotik nabarmentzen dute erosketa berdea garestiago delako uste okerra baztertu beharra dagoela. *«Ez da erosketaren kostua bakarrik hartu behar kontuan. Tresna efizienteago bat erosita, kontsumoan aurrezten da, bai eta hilero ordaindu beharreko energiaren fakturan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da administrazioek bizi-zikloaren kostuaren ikuspegitik lan egitea, hau da, produktu edo zerbitzuaz gain, horren bizitza baliagarrian eta amaieran sortzen diren kostu guztiak kontuan hartuta. Modu horretan, argi ikusiko ditugu administraziook geure gain hartu beharreko kostuak, erosteko kostuaz gain».*

## 2020RAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO PROGRAMA

### Zer da?

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresna bat da. Horren bidez, jarduteko esparru bat ezartzen da, Euskal Administrazio Publikoaren erosketa- eta kontratazio-prozesuetan ingurumen-aldagaia txertatzea sustatzeko xedearekin, Euskadiko 2020rako Ingurumen Esparru Programaren jarraibideekin eta Europako Batzordearekin bat etorritik.

## Helburuak

Programak Europar Batasunak proposatutako helburu kuantitatiboen antzeko batzuk ezartzen ditu:

- ingurumen-irizpideekin ematea lizitazioen % 50 2018an, beren garrantziagatik lehenetsitako produktu eta zerbitzuen hamar kategoriatan,
- eta 2020an produktuen beste hamar kategoriatan.

Programari atxikitzen zaizkion euskal sektore publikoko erakundeek helburu horiek bere egiten dituzte, eta konpromisoa hartzen dute hori lortzeko urteko plan bat egiteko.

Gaur egun, Ihobe sozietate publikoaren datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio publiko berdearen % 30 inguru egiten da ingurumen-irizpideekin.

## Kronologia

2004tik, erosketa eta kontratazio publiko berdea presente egon da hainbat plan estrategiko eta hitzarmen espezifikotan, hala nola 2020 arterako Ingurumen Esparru Programan, autonomia-erkidegoaren administrazioaren eta sektore publikoaren kontratazioan ingurumen-irizpide sozialak eta beste politika publiko batzuk txertatzeari buruzko gobernu-kontseiluaren 2008ko Erabakian edo 2012 eta 2016 arteko gobernu-programan.

2005etik, Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Ihobe sozietate publikoaren bitartez, euskal administrazioei kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko tresnak eta laguntza ematen dizkie.

- **2011** – Erosketa eta kontratazio publiko berderako lehenengo programaren onarpena, 2011-2014 aldirako. Kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio publiko berdearen irismena % 30 ingurukoa da.
- **2014** – Euskadiko 2020rako Ingurumen Esparru Programa. «Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik» izeneko proiektu giltzarria hartzen du barne, 2020rako Erosketa Publiko Berdearen Programa onartzeko helburuarekin.
- **2016** – Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Bigarren Programaren onarpena, 2016-2020 aldirako. Helburuen artean jasota dago erosketa eta kontratazio publikoaren % 50 ingurumen-irizpideekin egitea.
- **2018** – Indarrean jartzea 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Administrazioei eta enpresa lizitatzailaiei ingurumeneko alderdiak kontuan izateko betebeharra ezartzen die, erosketa eta kontratazio publikoko prozesuetan.

## Programaren ildo estrategikoak

Indarreko programa bost ildo estrategikotan egituratu da. Ildo horiek 19 jarduera barne hartzen dituzte:

1. Edukia eta ezartzeko tresnak.
2. Kontratazio prozeduretan txertatzea.
3. Prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa.
4. Merkatuarekiko koordinazioa.
5. Komunikazioa, dibulgazioa eta sare-lana.

Ildo horiek lotura estua dute helburuak erdiesteko irizpide teknikoak gartzearekin, prozedurak egokitzearekin, enpresekin batera lan egitearekin, prestakuntzarekin eta gaikuntzarekin eta emaitzak Euskadi barruan zein kanpoan ezagutzera ematearekin.

Lehen ildo estrategikoa oso aurreratua dago. Horren barnean, 27 ingurumen-irizpide daude eskuragarri, produktu eta zerbitzuen erosketan txertatzeko. Euskal administrazioen teknikarrien eskura daude, zuzenean lizitazio publikoetan txertatu ahal izan ditzaten.

## Nola neurtzen dira emaitzak?

Programa honek emaitzak neurtzeko eta jarraipena egiteko sistema bat du, helburuen lorpen-maila eta jardueren gauzatze-maila ezagutzera bideratuta. *«Erosketa eta kontratazio publiko berdearen emaitzak neurtzea oso konplexua da. Eusko Jaurlaritzak aukera praktikoa eta operatiboa baten alde egin du: ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kopurua eta zenbateko ekonomikoa neurtzea».*

## 2020rako Ingurumen Esparru Programari egindako ekarpena

2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programak (**IEP 2020**) jauzi kualitatibo bat planteatzen du ingurumen-politikan, ingurumena eta oparotasun ekonomikoa eta soziala lotuz.

2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programak lotura du 2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programaren sei helburu estrategikoetako hirurekin:

- **2. helburua:** Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz urratsak ematea.
- **4. helburua:** Lurraldeko jasangarritasuna areagotzea.
- **5. helburua:** Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuta.

Programa horrek berak ingurumen-politikak aldatzeko motore izango diren **6 proiektu giltzarri** ezartzen ditu. Horietako batek, «Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik» izenekoak, emaitza gisa jasotzen du 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa onartzea.

# INTERESEKO BIBLIOGRAFIA

- **Buying Green! – A Handbook on green public procurement** (2016), EKPBarri buruzko Europako oinarritzko eskuliburua. **Gaztelaniazko bertsioa** badago.
- **GPP Green Public Procurement**. A collection of good practices (2012), Europako Batzordea. EBko EKPbaren arloko jardunbide egokien adibideak jasotzen dituen dokumentua.
- **Green Public Procurement**, Europako Batzordearen EKPBarri buruzko webgunea.
- **Nazio Batuen Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa**, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi egin du bat programarekin.
- **2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa**, Eusko Jaurlaritza, 2016.
- **Procura+ Programa, ICLEIrena** (jasangarritasunaren aldeko tokiko gobernuen sarea); Eusko Jaurlaritza ere erosketa jasangarrien aldeko Europako sare horretako kide da.
- **Public procurement for a circular economy**. Good practice and guidance (2017), Europako Batzordea.
- **The Uptake of Green Public Procurement in the EU27** (2012), Centre for European Policy Studies (CEPS).

**Gako-hitzak:** EPKB, erosketa berdea, erosketa publiko berdea, erosketa eta kontratazio publiko berdea, green public procurement, ingurumen-erosketa.

# KAZETARIANTZAKO BALIABIDEAK

## 11 Irizpide erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruz

1. Erosketa eta kontratazio publikoetan irizpide «berdeak» erabiltzeak onurak dakartza ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik, administrazioarentzat, sektore pribatuarentzat eta gizartearentzat.
2. EKPBarri aurrezpen ekonomikoa sustatzen du kostuak optimizatzen dituelako eta produktu eta zerbitzuen bizi-ziklo guztia kontuan hartzen duelako.
3. EKPBarri herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, ingurumen-inpaktuak murriztuz.
4. Estatuko lege berriak erosketa eta kontratazio publiko guztietan ingurumen-irizpideak txertatzeko betebeharra ezartzen du martxoaren 9tik aurrera.
5. Ingurumeneko erantzukizunarekin bat egiten ez duten enpresek arazoak izango dituzte administrazioarekin lizitatzeko.
6. Euskadi EKPbaren arloko erreferente da estatuan eta Europan.
7. EKPBarri Euskadin izan duen hedapenak Eskualde Batuen Erakundearen (ORU Fogar) saria jaso du).
8. Euskadiko EKPbaren Programaren helburuetako bat da lizitazioen % 50ek ingurumen-irizpideak izatea 2020rako.

9. Gaur egun, erosketa eta kontratazio publikoaren % 30 inguru egiten da ingurumen-irizpideen bidez.
10. 28 erakunde atxiki zaizkio dagoeneko Euskadiko EKPBaren Programari, tartean udalak, mankomunitateak, industrialdeak eta abar.
11. 2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programak ingurumen aldetik «eredugarria» den administrazio bat lortzea du bere helburuen artean.

## Laburpenak

Eusko Jaurlaritzak inoizko aurrekonturik handiena du 2018an: 11.486 milioi, 2017ko ekitaldian baino % 3,9 gehiago. Indarrean dagoen Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programaren helburuetako bat da 2020an erosketa eta kontratazio publikoen % 50ek, gutxienez, ingurumen-irizpideak izatea.

Euskadin, 2004tik, EKPBa txertatu da zenbait plan estrategiko eta hitzarmen espezifikotan.

2008an, Eusko Jaurlaritzaren gobernu-kontseiluak erabaki bat hartu zuen, ingurumen-aldagaiak lizitazioetan txertatu beharreko zeharkako ildo gisa identifikatuz lehen aldiz.

2011n, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehen programa onartu zen, 2014ra arteko indarraldiarekin. 2016an bigarrena onartu zen, 2020ra arte luzatuko dena. Programa honek EBren antzeko helburu kuantitatiboak ditu: ingurumen-irizpideekin ematea lizitazioen % 50 2018an, beren garrantziagatik lehenetsitako produktu eta zerbitzuen hamar kategoriatan, eta horietan eta beste hamarretan 2020an.

Indarreko programa bost ildo estrategikotan egituratu da. Ildo horiek 19 jarduera barne hartzen ditu.

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programak lotura du 2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programaren (**IEP 2020**) sei helburu estrategikoetako hirurekin.

Gaur egun, lhobe sozietate publikoaren datuen arabera, Euskadiko erosketa eta kontratazio publikoaren % 30 inguru egiten da ingurumen-irizpideekin.

28 erakunde atxiki zaizkio dagoeneko 2020rako EKPBaren Programari, tartean udalak, mankomunitateak, industrialdeak eta abar.

2018ko martxoaren 9an indarrean jarri zen **9/2017 Legea** Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. Ingurumen- eta gizarte-klausulak nahitaez txertatu beharko dira, modu transbertsalean, erosketa eta kontratazio publikoetan.

Europako Batasunak badu erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko **webgune bat**; bertan, Europako jardunbide egokien adibide batzuk ematen dira, tartean Euskadiko batzuk.

## Aipu gisa erabiltzeko esaldi nabarmenak

«Erosketa eta kontratazio publiko berdea (EKPB) edo, ingelesez, Green Public Procurement (GPP) honela definitzen du Europako Batzordeak: prozesu bat da, zeinari jarraikiz agintaritze publikoak beren bizi-zikloan ingurumen-inpaktu txikia eragiten duten produktuak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen ahalegintzen diren, funtzio nagusi bera betetzen duten ingurumen-inpaktu handiagoko beste produktu, zerbitzu eta obra batzuen orde», Gorane Ibarra, Ihobe sozietate publikoko erosketa publiko berdeko teknikaria.

«Ingurumeneko erantzukizunarekin bat egiten ez duten enpresek arazoak izango dituzte administrazioarekin lizitatzeko», Gorane Ibarra, Ihobe sozietate publikoko erosketa publiko berdeko teknikaria.

«EKPBak beti murrizten du ingurumen-inpaktua eta gehienetan abantaila ekonomikoak ere badakartza», Gorane Ibarra, Ihobe sozietate publikoko erosketa publiko berdeko teknikaria.

«Euskadi erreferentziazko lurraldea da gai horri dagokionez, estatuak eta Europak gure irizpide eta esperientziei begiratzen diete», Gorane Ibarra, Ihobe sozietate publikoko erosketa publiko berdeko teknikaria.

## Hemeroteka

- Barakaldok Tokiko Agenda 21en diagnostikoa amaitu du, erosketa berdearen eta klima-aldaketaren erronkekin, **Europa Press**, 2018/04/25.
- Nekazaritza Ministerioak kontratazio publiko ekologikorako plan bat abiarazi du, **El Economista**, 2018/04/16.
- Erosketa berdea nahitaez bete beharrekoa izango da martxotik aurrera, **Deia**, 2018/04/15.
- Jaurlaritzak aitortza egin die beren kontratuetan erosketa berdearen klausulak txertatzen dituzten erakunde publikoei, **Europa Press**, 2018/02/14.
- Eusko Jaurlaritzak erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko jardunaldi bat antolatu du, **ESEficiencia**, 2018/02/13.
- Ingurumen Saila Estonian izan da erosketa publiko berdeari eta EMAS sistemari buruzko lantegi batean, **Europa Press**, 2018/02/13.
- ORU Fogarrek erosketa eta kontratazio publiko berdeak Euskadin lortu duen hedapena saritu du, **Construible**, 2017/12/12.
- Europako Batzordeak ekonomia zirkular baterako kontratazio publiko berdeari buruzko beste txosten bat argitaratu du, **Retema**, 2017/10/19.
- Europako Batzordeak higigarrien sektorerako kontratazio publiko berderako irizpideak aurkeztu ditu, **Retema**, 2017/09/13.
- Ia 200 udalerrik egin dute bat Euskadiko Erosketa Publiko Berderako Programarekin, **Esmartcity.es**, 2017/08/04.
- ICLEIk Eusko Jaurlaritzak erosketa publiko berdearen alorrean eginiko lana saritu du, **Construible**, 2016/01/12.







Herri-baltza

Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)  
[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)